

Hitza Kultura Etxean



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava



Casa de Cultura

IGNACIO ALDECOA

Kultura Etxea

Floridako ibilbidea, 9 • 01005 Gasteiz
www.alava.net/web/biblioteca
Tel.: 945 18 19 44 • ccultura@alava.net



IGNACIO ALDECOA Kultura Etxea



Martxoaren 13a

**Hiru L-ak:
Lauaxeta, Lizardi, Lete**

Errezitaldia

Anjel Lertxundi idazleak Lauaxetaren, Lizardiren eta Lete-ren poemak irakurriko ditu eta Antton Valverdek lagunduko dio pianoan.

Apirilaren 10a

Koldo Izagirrerekin solasean

**Errezitaldia
eta elkarrizketa**

Parisen bizi naiz poema-liburutik abiatuta, Donostiaz eta Donostia ez denaz, Koldok darabilen geografiaz, darabiltzan pertsonaz, eta, oroz gain, formaz, mintzatuko dira Miel A. Elustondo moderatzailea eta Koldo Izagirre idazlea. Era berean, idazleak hainbat poema errezitatuko ditu.

Maiatzaren 15a

**Bertsolaritza:
gorputzak, gorpuzkerak, gorputzaldiak**

Hitzaldia

Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak bertsolaritzaren panorama aztertuko du ikuspegi feminista batetik. Horretarako, galdera hauek erantzuten saiatuko da: zein da emakume bertsolarien errealitatea? Eroso sentitzen dira bertsolaritzaren moldean? Badute euren molde propioak? Zer dute eskaintzeko? Nola errimatzen da berdintasunaren doinu propioan?

Ekainaren 12a

Bidaiek ez dute bueltarik

Ipuin-kontaketa

Itziar Rekalde ipuin-kontalariak bidaiei buruzko hausnarketa proposatzen digu ekitaldi honetan: bidaia bizitzaren metafora gisa, eta bidaia esperientzia gisa. Hiru protagonista, hiru ibilbide eta historia asko eta asko. Inaxioren, Ibrahimen eta Fatimaren ekipajeaz ez dira falta beldurra, bakardadea, deserrotzea eta esperantza.

Jarduera guztiak **Ignacio Aldecoa Kultura Etxean** izango dira.

19:30ean.

Sarrera librea, toki guztiak bete arte.

